



HERNANI KO

KALDEREROAK

# 1. KALDEREROEN KONPARTSA

Nork dauka eltze zaharrik  
konpondu nahi duenik?



# 2. KALDERERO HUNGARIARREN KOROA

Zein ederra, zein xarmanta  
Hernaniko lurra eta herria.  
Herri jator hernaniarra  
agurtuz dugu atsegina.

Hungariako kaldereroak gara  
etorririk Hernanira.  
Laster Momok argituko ditu  
nahiz eguna, nahiz eta gaua.  
Inauteri alaiaren iragarle gu gara  
bai! atsegina eta algara. *(Bis)*



Aizak, bai, bai,  
jozak, bai, bai,  
jozak, bai, bai, bai, bai. *(Bis)*

Zein ederra, zein xarmanta  
Hernaniko lurra eta herria.  
Herri jator hernaniarra  
agurtuz dugu atsegina.

### 3. HERRIZ HERRI

Herriz herri gabiltza gu beti  
ederrez begiak aserik. *(Bis)*

Bainan inon ez dugu ikusi  
hemen bezain neska ederrik. *(Bis)*

Gerri mehea eta liraina  
ezpaina gorri eta mardul. *(Bis)*

Gure arteko bat bazina  
zuk begiez metala urtu. *(Bis)*

Bai, bai, urtu  
bai, bai, urtu.



## 4. KALDEREROAK LANEAN

Adiskide maiteok,  
ekin ba lanari.

Kriseilu, lapiko, pertzak,  
burruntzali eta eltzeak.  
Aise konpontzen gu gara  
merke eta trebeak! *(Bis)*

Eta lana musu truke  
pozik egingo genuke,  
hor goiko neska politek  
eskutzen badigute. *(Bis)*

Hernaniar neska panpoxak  
ez al dugu beste lanik?  
Aurtengoz badugu aski  
eta goazen aurrera.



Kontu izan, agur gisan  
kaldereroek kantatzean,  
berriz ere egun batez  
joko dugula, tak tiki tak.

Hernaniar neska panpoxak  
ez al dugu beste lanik?  
Aurtengoz badugu aski  
eta goazen aurrera.

## 5. HUNGARIAKO KANTUA

Alanbrekorik guretzat  
nork du? nork du? nork du?

Arbeit asfreit,  
ist gut ruhen singelin.  
Arbeit, asfreit,  
ist gut ruhen singelin.  
Est mur serlunch  
est mur serlunch.  
Frais ken fort len  
wolmiach ot men.



## 6. BEGI URDIN

Famaren hotsak goitutzen du  
merezki duen herria  
zeru txiki bat dirudiena, hala da gustagarria.

Lehengoko zaharra, txukun txukuna,  
eder alaia berria.  
Ez zaigu penik behin ere joango  
lehenago ez etorria. *(Bis)*

Begi urdin bat begira dago  
algaraz leiho batetik.  
Beste beltzaran tentatzailea,  
zelatan berriz bestetik.

Zoramen hauek maite ditugu  
bihotzen erdi-erditik.  
Ez gera joango hoiak lagata  
gehiago Hernanitik. *(Bis)*



Ez gera joango ez, gu Hernanitik.

## 7. HAURREN KANTA



Izarrak zeruan, argi txikiak keinutan,  
ilargi handia nagusitu da zeruetan.  
Gu denok batera, ametsak gure buruetan:  
noiz helduko gera Hernaniko kalera? *(Bis)*

Zein herri maitea Hernaniko auzoa.  
Ez dago munduan zu bezalako txokoa.  
Ibaia, mendiak, Santa Barbara aurrean,  
nola joan zure ondotik, holako mami goxoa? *(Bis)*

## 8. HAURREN DANTZA



## **PARTAIDEAK:**

Leire Aiape, Maialen Alberro, Janire Garin, Ione Iruretagoiena, Ane Lujanbio, Leire Mendiluze, Miren Zubillaga, Garazi Castelar, Lide Goia, Leire Goñi, Itxaso Lekuona, Itxaso Rodríguez, Nabila Garin, Nora Fuentes, Añarbe Kalonje, Hiart Navarro, Lide Redondo, Nagore Urreta, Irati Sarasua, Naroa Pérez, Ane Arregi, Garbiñe Orbegozo, Lander Molano, Aritz Otaegi, Beñat Vaz-Romero, Miren Peñagarikano, Oihane Erize, Ane Aierbe, Maddi Iradi, Roberto Pacheco, Sergio Carbajo, Itxaso Pacheco, Mikel Elola, Haritz Ostolaza, David Muriel, Mikel Pérez, Bauti Cuenca, Lierni Mateos, Imanol García, Iker Loiarte, Andrea Uzkudun eta Edgar Carbajo.

## **ESKERTZAK:**

Joseba Aldasoro  
Jaime Eguzkiza  
Josu López  
Jose Mari Oiarzabal  
Laura Pacheco

Hernaniko KRONIKA

Grabaketa 2005eko apirilaren 24an "HERNANI" Musika Eskolan egin zen.  
(Teknikarlak: Juanbau Larburu eta Pelo Gorrotxategi).



KALDEREROEN KONPARSA



KALDERERO HUNGARIARREN KORUA



HERRIZ HERRI



KALDEREROAK LANEAN



HUNGARIAKO KANTUA



BEGI URDIN BAT



HAURREN KANTA



HAURREN DANTZA

*"HERNANI" Musika Eskolako ABESBATZA eta SAXOFOI Taldea*



"HERNANI" Musika Eskola Publikoa

Hernaniko Udala  
Hezkuntza eta Euskara Batzordeak

